

**herrera-bidebieta**

# Txingurri ibai estaliaren garbiketa

**T**xingurri ibaiak izugarriko garrantzia izan du gure auzoaren bizitzan. Baina alderantziz ere gertatu da, zementuzko kale eta eraikuntza itsusiek Txingurri ibaian eragin handia izan baitute. Eraikuntza hauek labaderoa desagertarazi zuten eta Txingurri ibaiareu ibilbidea estalita gelditu zen betirako.

Honela, herrertar gazteak Txingurri ibaia zenik ere ahaztu egin zuten, uholde, kutsadura eta usai txarrak ibaia bertan zela gogorarazi zien arte.

## Uholdeak

1992ko uholdearen ondorioz, udaleko teknikariak Txingurri ibaiareu garbiketa beharrezkoa zela eta, behar bezalako garrantzia eman behar zitzaioela konturatu ziren.

Handik aurrera, instituzioek Herreran, uraren inguruan, hiru fasetan, aldketak egiteko konpro-

mezua hartu zuten.


Lehenik, marea-  
ren arabera Txingurri  
ibaiaren gora-behe-  
rek eta ur jario gogo-  
rrek sortarazten zi-  
tuzten uholdeak  
kontrolatzeko asmoz,  
San Luis enparantza  
inguruan ur sareak  
jarri ziren.

Honekin, hala  
moduz, San Luis  
enparantzako denda  
eta etxeek jasaten  
zituzten hainbat eta  
hainbat uholde kon-  
trolatuta gelditu  
ziren.

## Auzoaren barre- nak garbitzen

Bigarren fase bate-  
rako ibaia garbitzea  
finkatu zen.

Momentu hone-  
tan, bigarren fase  
honetan aurkitzen  
gara eta dagoeneko ibaia,  
San Luis enparantza pare-  
an, garbitzen hasi dira.  
Garbiketa hau oso ga-




Txingurri ibaia aspaldian estali zuten zementuz eta  
auzoaren azpialdetik pasatzen da.

rantzitsua izan da herre-  
ratar guztientzat, alde  
batetik bertan zeuden  
zikinkeria eta zabor  
zaharkituek ibaiaren  
jarria oztopatzen zutelako  
eta bigarrenik gazte asko  
eta askok ibaiaren ibilbi-

dea ezagutu ahal izan  
dugulako. Hori dela eta,  
ez da harrizkoa Herrera-  
ko enparantzaren goikal-  
dean jendea Txingurri  
ibaiari begira egotea.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



## Zikloturisten ibilaldia

**d**atorren igandean, hilak 31, eta uztailari ibilaldia antolatu dute Euskal-Giroa elkarteko zikloturistek.

Ibilaldi honek 95Km dauzka eta Bera de Bidasoatik aurrera eginuz Etxalareko bidea hartuko da aldapan gora.

Irteera goizeko 8etan izango da Euskal Giroako izki-  
nean eta kontrolak 8.30etan eta 11etan egingo dira.

Gogoratu bestalde igande honetan ez dela IV. Cha-  
llenge Intersozialaren frogarik egingo.